



Euskal administrazio publikoek
jarraipena eman behar diete
kalean bizi diren pertsonak artatzen
orain arte egindako ahaleginei, betiere
Etxegabeentzako Euskal Estrategiako
(2018-2021) jarraibideak betez

Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorra,
2020ko ekainaren 5ekoa

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 5koa.

Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez.

I. SARRERA

Euskal administrazio publikoek hainbat jarduera egin dituzte SARS–COVID-19 koronabirusaren progresioak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren ondorioak arintzeko. Euskadin birusak lehen kutsatuak eragin zituenetik, eta, bereziki, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu zenetik eta haren luzapenetatik¹, arauak, jarraibideak, gomendioak eta

¹ **Espania.** 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena [linean]. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2020ko martxoaren 14a, 67. zk Hemen eskuragarri:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-3692

Espania. 476/2020 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera luzatzen duena, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko [linean]. *Estatuko*

Aldizkari Ofiziala, 2020ko martxoaren 28a, 86. zk. Hemen eskuragarri:

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2020-4155>

Espania. 537/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera luzatzen duena, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko [linean]. *Estatuko*

Aldizkari Ofiziala, 2020ko maiatzaren 23a, 145. zk. Hemen eskuragarri:

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2020-5243>

Espania. Diputatuen Kongresua. Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera luzatzea baimentzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena [linean]. *Estatuko*

Aldizkari Ofiziala, 2020ko apirilaren 11a, 111. Zk. Hemen eskuragarri:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-4406

Espania. Diputatuen Kongresua. Ebazpena, 2020ko apirilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera luzatzea baimentzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena [linean]. *Estatuko*

Aldizkari Ofiziala 2020ko apirilaren 25a, 115. zk. Hemen eskuragarri:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-4648

jarduteko gidak onartu dira kalean bizi diren etxegabeen eskubideak zaintzen eta defendatzen diharduten zentro eta erakundeentzat.

Tresna horiek lantzeaz gain, aurrekontu eta laguntza-programa berriak abian jarri dira larritasun handiko ezohiko egoera honek eragindako gizarte- eta ekonomia-sektoreentzat, helburu nagusia honakoa izanik: gaixotasunaren hedapena geldiarazteko, osasun-eskakizunak betetzeko eta jarduera ekonomiko ugari eteteko ezarritako konfinamenduaren ondoriozko zailtasunak konpentsatzeko.

Arartekoak ez du proposatzen herri-administrazioek adostu dituzten eta sektore ugari eragiten dioten neurrien bilduma bat egitea. Gomendio honi eragiten diotenak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak emandako bilatzailean² kontsulta daitezke.

Deskribapen gisa, honako hauek aipatzen dira: norberaren konturako langileentzat edo langile autonomoentzat deitutako ezohiko laguntzak; enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programak, bai eta kulturaren profesionalei eta arrantza-, nekazaritza-, elikagai- eta turismo-sektoreei zuzendutakoak ere. Gainera, zerga-izaerako neurriak adostu dira, hala nola etxebizitza libreak alokatzeko, ekonomiaren eta gizartearen ahultasun-egoerei aurre egiteko edo familiei sorospena eskaintzeko laguntzak, eta gizarte-larrialdietarako laguntzen programaren kreditua handitu da; orobat, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloko neurriak ere ezarri dira.

Gomendio honen xedeari eragiten dion ekimen interesgarri bat Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak bazterkeria- eta pobrezia-egoerei aurre egiteko funtsa onartu izanak eratu du. Funts horrek 10 milioi euro ditu, eta, besteak beste, etxerik gabeko pertsoneri eta, krisiaren ondorioz, laguntza beharko duten pertsoneri zuzenduta dago. Hori dela bide, ostatua, mantenua, sendagaiak, ordezko kontsumoak (Erdu programa) edota babes-materialak opesten dira. Laguntza ekonomikoa ere aurreikusten du (Azken Sarea Indartzen), baliabiderik ez duten familien oinarrizko beharrei erantzuteko. Gainera, programak (Aterpeak) aurreikusi dira baliabide kolektiboetan ostatu hartuta dauden etxegabeen ostatu-baliabideak indartzeko, dibertsifikatzeko eta hobetzeko. Parte hartzen duten erakundeek proiektuak garatu behar dituzte, eskura dauden azpiegituren bidez (propioak edo hirugarrenek lagatakoak) premia horiei erantzun ahal izateko. Baliabide txikiagoak (50 pertsona baino gutxiago) martxan jartzera bideratutako proiektuak garatzen laguntzea aurreikusten da.

Konfinamenduak, etxetik irteteko debekuak, egiaztatu behar diren egoera jakin batzuetan izan ezik, agerian utzi ditu etxegabeen egoera eta haien eguneroko ahuleziak, oinarrizko premiak ase ez dituztelako eta eskatutako higiena eskuratu ezin dutelako. Gainera, osasun onik ez duten pertsonak izan ohi dira. Ezaugarri

²Euskadi. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. #covid19Laguntzak.eus: Covid-19ren aurrean Euskadiko Gizarte Zerbitzuetako laguntza eta prestazioen bilatzailea. Hemen eskuragarri: <https://www.covid19laguntzak.eus/eu/>

nagusiak zabal aztertu dira SIISen³ EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko lau azterlanetan.

Zorionez, Euskadik *Etxegabeentzako Euskal Estrategia* bat du (2018-2021)⁴, eta geroago aipatuko dugu zehatzago, gomendio orokor honen edukian duen garrantziagatik. Azterlan eta beste txosten horiek udalerrri mailan egin dira azken urteotan, eta EAEn bizi diren etxegabeen beharrak eta profilak zuzenean eta xehetasun handiz ezagutzeko aukera ematen dute.

Hasiera batean FEANTSAk, Etxegabeen alde lan egiten duten Elkarte Nazionalen Federazioak, proposatu zuen etxegabearen definizioa: *"Bizitzeko leku egoki batera modu iraunkorrean sartu ezin diren guztiak, edo bizitoki horri eutsi ezin diotenak zailtasun ekonomikoak eta beste oztopo sozial batzuk dituztelako, edo modu autonomoan bizitzeko zailtasunak dituztelako; bizilagun horiek artatu eta babestu behar dira, baina instituzionalizatu gabe"*⁵. Ondoren, FEANTSAk ETHOS tipologia (Etxerik Gabeko eta Bizitegi Bazterketako Pertsonen Tipologia Europarra) deitutakoa garatu zuen, kategoria posible guztiak aztertzeko. Tipologia hori hainbat aldaerarekin erabili da, hala nola EAEn bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen egoerari buruzko azterlanetan, lehen aipatu ditugunetan, hain zuzen ere. Azterlan horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan kalean lo egiten ari diren eta etxebizitzarik ez duten baina bizitegi-dispositiboren batean ostatu hartuta dauden pertsonekin lotutako kategoria operatibo jakin batzuk aztertu dira. Bi egoerak etxegabetasuna deritzonaren parte dira.

EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko EAEko IV. Azterlanaren (2018) emaitzen arabera, 3.007 pertsona aurkitu ziren bizitegi-bazterketa larrian, horietatik % 17,8 kalean eta % 82,2 eskura zeuden baliabideetan. Estatuko beste hiri batzuekin konparatuta, ostatu-baliabideetan ostatu hartzen duten pertsonen kopurua handiagoa bada ere, 2018ko zenbaketak iguera erakutsi zuen, 2016an lortutako datuekin alderatuta, Bilboko eta Donostiako

³SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV* [linean]. [Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza], 2013. Hemen eskuragarri: <https://www.siiis.net/documentos/ficha/194113.pdf>

SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *II Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2014* [linean]. [Donostia-San Sebastián: SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa], 2015. Hemen eskuragarri:

<https://www.siiis.net/es/documentacion/catalogo/Record/505219>

SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko III. azterketa 2016 [linean]. [Vitoria-Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco], 2017. Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_025_estudioexresiden/eu_def/adjuntos/c25_III_Resultado_Estudio%20Exclusion%20Residencial_2017_eu.pdf

SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *IV Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2018* [linean]. [Vitoria-Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza], 2020. Hemen eskuragarri:

<https://www.siiis.net/documentos/informes/545454.pdf>

⁴Euskadi. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, *Etxerik gabeko euskal estrategia (2018-2021)* [linean]. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, [2017]. Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/instrumento_valoracion/eu_instrume/adjuntos/ESTRATEGIA%20VASCA%20PARA%20PERSONAS%20SIN%20HOGAR%202018-2021%20euskera.pdf

⁵ ídem

hirietan, aipatutako azterlanean azaltzen den bezala, 30 urtetik beherako atzeritarren kopuruak gora egin zuelako. Bestalde, azterketak ere egiaztatzen du plaza erabilgarriak ere handitu egin direla azken txostena egin zenetik: Gipuzkoan % 33, Araban % 28 eta Bizkaian % 19. Gainera, nabarmendu beharreko gai gisa, azpimarratu da gora egin duela ostatu hartzeko zerbitzuetan dauden emakumeen kopuruak, bai eta familienak ere.

Bizitegiren oraintsuko azterlan batek, bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzkoak⁶, zenbait gomendio orokor eta espezifiko ere proposatzen ditu, emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko, eta jardunbide egokiak biltzen ditu, zailtasun-egoeran dauden pertsonekin egunero lan egiteak dakarren ezagutza sakonetik abiatuta.

Bestalde, Arartekoaren aparteko txostenean⁷ (*Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* deritzona) agerian jarri den arazo bat izan da kale-egoeran zeuden pertsonen ehuneko handi bat lehenago erakunde batean bizi zela egiaztatzea (adingabeen zentroak, espetxe-zentroak, komunitate terapeutikoak...).

Arartekoak bere urteroko txostenetan⁸ berretsi duenez, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen kopuruak gora egin duenez, eta haien ezaugarriak eta kolektiboaren beharrian espezifikoak hobeto ezagutzen direnez (egindako azterlan eta txosten anitzetan azaltzen dira), premiazkoa da talde desberdinen premietara egokitutako neurriak aplikatzea, hala nola, emakumeen edo adingabeak dituzten familien kolektiboetan; era berean, Etxegabeentzako Euskal Estrategian eta housing first⁹ programen ebaluazioen ondoriozkoetan aurreikusitako ekintzak betetzearen garrantzia azpimarratu du, eta nabarmendu du oso garrantzitsua dela behar adina bizitoki eta prebentzio-neurri egoki izatea, neguko tenperatura baxuen aurrean eta pertsona horien bizitza arriskuan jartzeko benetako arriskuaren aurrean, zoritxarrez azken urte honetan horixe gertatu baita.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak askotariko egoeretan dauden eta elkarri eragiten dioten hainbat faktoreri aurre egin behar dieten pertsona horiei laguntzen ari dira, eta horrek are gehiago zailtzen du erantzun integrala eskaintzeko aukera. Kasu batzuetan, arazo nagusia etxebizitzarik ez izatea da; beste kasu

⁶ **Bizitegi.** *Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzko ikerketa* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2019. Hemen eskuragarri: http://www.bizitegi.org/wp-content/uploads/2019/08/Emakumeen-errealitateari-buruzko-ikerketa_eus.pdf

⁷ **Euskadi. Ararteko.** *Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2006. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_9_1.pdf

⁸ **Euskadi. Ararteko.** Urteko txostena [linean]. Vitoria-Gasteiz: Ararteko. ISSN-e 2255-4920. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/contenedor.jsp?seccion=s_l doc_d4_v3.jsp&codMenuSN=376&codMenuPN=1&codbusqueda=6&codResi=1&codMenu=398&language=eu

⁹ **Bizkaia. Batzar Nagusiak.** Kanpo azterketa batek Gizarte Inklusioa Sustatzeko Foru Saileko Habitat Bizkaia Programaren eraginkortasuna bermatu du. En: *Berriak, Bizkaia Batzar Nagusiak* [linean], 02/12/2019. Hemen eskuragarri: https://www.jjggbizkaia.eus/home2/prensa/noticias_detalle.asp?id=5551

batzuetan, berriz, arazo emozionalak, indarkeria, diskriminazioa edo osasun-arazoak pilatzen dituzten pertsonak dira, urteetan jasandako gizarte-bazterketako egoera larriagotzeari eta kalteak eremu guztietan zabaltzen dituen bizitegi-bazterketari lotuta.

Konfinamenduaren eskakizunei erantzuteko neurriak hartu beharrak baliabide materialak eta pertsonalak egituratzea ekarri du, bai eta gizarte- eta osasun-arloko profesional eta gizarte-eragile askoren lankidetzaren ere, eta horiei esker erantzun duina eman ahal izan zaie bai gizonei bai emakume konfinatuei, denbora-tarte labur batean.

Gizarte-zerbitzuen, esku-hartze sozialeko hirugarren sektorearen eta boluntariotzaren ahalegina eta dedikazioa aitortu eta goraipatu egin behar dira, giza balio eta balio profesional handia dutelako. Gizarte- eta osasun-zerbitzuek aurre egin beharreko erronka pertsona guztiak funtsezkoak eta beharrezkoak direla eta ekintza publiko horrek betebeharrak juridiko, etiko eta moralaz gain, betebeharrak bati erantzuten diola uste izateari esker lortu da. Biztanle guztien gizarte-ongizatearen aldeko borroka gizartearen eta euskal erakunde publikoen lehentasuna izan behar du.

Arartekoak aitortu egiten du euskal administrazio publikoek eta haren zerbitzura dauden langileek herritarrei eta, bereziki, gizarte-bazterketan dauden pertsonen eskaini dieten lana eta zerbitzua. Gomendio orokor honen bidez, etorkizuneko proposamen bat jasotzen da, eta, dirudienek, nahitaezkoa da osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiaren egoera honetan, euskal administrazio publikoek egin duten gizarte-inbertsioaren ondorio logikoa delako eta gizarte- eta zuzenbide-estatu baten helburuari erantzuten diolako.

II. GOGOETAK

1.- Euskal herri-agintek agindu zuzena dute Espainiako Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, eta, Espainiak izenpetutako nazioarteko itun eta hitzarmenen bidez hartutako konpromisoen ondorioz, zenbait kolektibok pairatzen duten desberdintasunari eta zaurgarritasunari aurre egiteko eta kolektibo horiek gizartean baztertua saihesteko jarduerak gauzatzeko (EKren 9.2. art.); hori dela eta, norbanakoen eta taldeen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatu behar dituzte, haien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dituzte eta guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea erraztu behar dute. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua¹⁰ honako hau ezartzen du:

¹⁰**Nazio Batuak. Batzar Nagusia.** Ekonomia-, gizarte- eta kulturaeskubideen Nazioarteko Ituna [linean]. A/RES/2200(XXI) A, 1966ko abenduaren 16a. Hemen eskuragarri: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_eskubideak/es_def/adjuntos/Ekonomia-,gizarte- eta kultura-eskubideen_Nazioarteko_Ituna.pdf

“1. Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona orok duen eskubidea, norberak eta norberaren familiak bizitza-maila egokia izateko, baita elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak ere, eta bizitza-baldintzak etengabe hobetzeko. Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte eskubide horren eragingarritasuna ziurtatzeko, ondore horretarako aitortuko dutela nazioarteko lankidetzaren garrantzia, hori adostasun askean oinarritzen denean.

2. Itun honetako estatu alderdiek, aitortuz pertsona orok duen oinarrizko eskubidea, gosearen aurka babestua izateko, beharrezko neurriak hartuko dituzte, programa zehatzak ere barnean direla, banaka eta nazioarteko lankidetzaren bidez:

a) Elikagaien ekoizpen-, kontserbazio- eta banaketa-metodoak hobetzeko, jakitate tekniko eta zientifikoak erabat erabiliz, elikadurari buruzko printzipioak hedatuz eta nekazaritza-araubideak hobetuz edo eraldatuz, aberastasun naturalen ustiapen eta erabilera eragingarriak lor daitezen;

b) Ziurtatzeko munduko elikagaien banaketa bidezkoa izatea, beharrezko araberakoa, aintzat hartuz elikadura-produktuak inportatzen edo esportatzen dituzten herrialdeei sor dakizkiekeen arazoak.”

Estatu sozialak eta zuzenbidekoak pertsona ahulenen beharrei erantzuteko betebeharra eta justizia soziala dakartza berekin.

Betebehar hori areagotu egiten da krisi sanitario, sozial eta ekonomikoko egoeretan.

COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko eta ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak¹¹ berariaz ezartzen du indartu egin behar direla etxegabeen arretarako gailuak, langile eta baliabide material egokiak, haiek eta pertsona horiek artetzen dituztenak behar bezala babestuta daudela ziurtatuz. Halaber, luzapen hori egiteko aukera aurreikusten du, bai egonaldian, bai horien intentsitatean (2.d artikulua).

Eskubide Sozialen eta Agenda 2030en Ministerioak dokumentu tekniko bat egin zuen; hala, gizarte-zerbitzuen kudeatzaileen eskura jarri du COVID 19ren krisiaren aurrean jarduteko gomendioen agiri teknikoa¹², etxegabeak artatzeko gizarte-zerbitzuen kudeatzaileentzat. Bertan, jarraibideak ematen zaizkie bai autonomia-erkidegoei eta udaletako gizarte-zerbitzuei, bai dagoeneko artapen-zentroetan dauden pertsonen, etxegabeentzako baliabideetako artapen-pertsonalari eta kalean dauden pertsonen.

¹¹ **Espainia.** 8/2020 Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko eta ezohiko neurriei buruzkoa [linean]. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2020ko martxoaren 18a, 73, zk. Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-3824

¹² **Espainia.** **Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030aren Ministerioa.** *Documento técnico de recomendaciones de actuación ante la crisis por covid-19, para los gestores de servicios sociales de atención a personas sin hogar.* Versión 2 (18/03/2020) [linean]. Madrid: Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030, 2020. Hemen eskuragarri: https://www.mscbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/ServiciosSociales/docs/Covid19/Rec_atencion_domiciliaria.pdf

Egoitza-baliabideetan dauden etxegabeak eta kalean daudenak babesteko zenbait jarduketa egitea aurreikusten du dokumentuak. Halaber, gazte- edo turismo-aterpetxeetan, kirol-zentroetan, kultura-zentroetan, pabiloietan, tutoretzapeko etxebizitzetan eta abarretan ostatu-espazio gehigarriak gaitzea aurreikusten du, ahal den neurrian, gune zentrikoak eta irisgarriak lehenetsiz, arestian aipatutako irizpideak betetzen dituzten eta zerbitzu jakin batzuk eman ditzaketen espazio irekiak prestatuz.

Orobat, ezartzen da gune horietan bereziki zainduko dela etxerik gabeko emakumeen osotasuna eta segurtasuna, kasu bakoitzean behar diren neurriak hartuz.

Horrez gain, dokumentu teknikoan adierazten denez, garrantzitsua izango da gune horietan komunikazio eraginkorra egitea eta pertsonen gaur egungo egoera argi eta garbi azaltzea, ahalik eta lankidetzaz handiena eskatzeko (horretarako, hainbat hizkuntzatan egin behar da) eta, ahal den neurrian, bertan jarraitzeko baldintzak malgutzeko.

Gainera, honakoa aurreikusten du:

"20.000 biztanletik gorako udal bakoitzak edo udalaz gaindiko toki-erakunde bakoitzak –non etxerik gabeko pertsonak daudela edo haietarako zerbitzuak dituela egiaztatzen den— egoeraren diagnostikoa egingo du, zerbitzuak planifikatuko ditu eta baliabide egokiak antolatuko ditu dokumentu honetan jasotako jarduketak betetzeko. Autonomia-erkidegoek toki-erakundeek arlo horretan egiten duten lana babestuko dute".

Kalean dauden pertsonen zuzendutako jarduketa bat ere aurreikusten da:

"Kalean dauden pertsonen gainerako herritarrentzat ezarritako konfinamendu-arauek bete beharko lituzkete, eta, aldi berean, haien segurtasuna, premien estaldura eta ostatu-zerbitzua izateko aukera bermatu beharko litzateke (...)".

2.- Aurreko aurreikuspenak aplikatuz, eta konfinamenduaren ondoriozko eskakizunei aurre egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan kale egoeran dauden pertsonen eskura jarri dira aterpetxeak, egoitzak eta beste ekipamendu batzuk, hala nola eguneko zentroak, kiroldegiak edo frontoiak, beste baliabide batzuen artean, eta horiek gaitu dira pertsona horiek ostatu hartzeko eta bizitza- eta higiene-baldintza duinetan konfinatuta egoteko; hala ere, horrek ezin izan du eragotzi pertsona batzuek gure hirietan abandonatutako eraikinetan bizitzen jarraitu izana edo kalean bizi izana.

Alarma-egoerak martxoaren 14tik aurrera iraun du, eta, horren ondorioz, egoitza-baliabideak eta bitarteko materialak abiarazi eta osasun-, gizarte- eta hezkuntza-arloko profesionalen baliabideak ere erabili behar izan dira. Horiei esker, erantzun bat eman ahal izan zaie Euskal Autonomia Erkidegoko etxegabeen premiei, lehen

astetik, eraginkortasun eta arintasun goraipagarriarekin. Horretarako, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-arloko langileak kontratatu dira, baina boluntarioek¹³ ere parte hartu dute. Boluntario horiek modu desinteresatuan lagundu dute, aurkeztu diren premia-egoeren aurrean ahaleginak batu ahal izateko.

Donostiaren kasuan, Herritarren Harrera Sareak¹⁴ lagundu du elikagaiak banatzen eta kalean geratzen ziren pertsonen oinarriko neurri higienikoak ematen. Taberna, jatetxe, denda eta partikularren aldetik ere elikagai, manta eta ekonomiari lotutako dohaintza ugari jaso dira. Beste udalerrri batzuetan ere antzeko ekimenak garatu dira, hala nola Tolosa edo Gernika¹⁵.

Bilbon jantoki sozialak egoteak aukera eman du hiri honetan dagoen elikadura-beharrari erantzun bat emateko. Gasteizen ere jantoki sozialak daude, eta janaria etxera eramateko aukera eman da. Beste udal batzuetan hainbat erantzun artikulatu dira, oinarriko beharrak asetzeko.

Une honetan ez daukagu artatutako pertsonen kopuru osoa; izan ere, zaila da, ezinezkoa baita argazki finko bat lortzea, lehen aipatu ditugun azterlanetarako¹⁶ zenbaketetan bezala. Bilbon 700 pertsona baino gehiago artatu direla aipatu da, Donostian 170 pertsona baino gehiago, eta Gasteizen 200 pertsona inguru. Zifra batera hurbiltzea oso konplexua da, hainbat udalerritan baliabide ugari ireki direlako etengabe, ez bakarrik hiriburuetan. Nolanahi ere, Arartekoak ez du zifra zehatzik ezagutzen, eta ebazpen honen xedea ere ez da abian jarri diren errekurtsoen deskribapen bat egitea.

3.- Kalean bizi diren pertsonak gizarte-bazterketako egoeran daude. Prozesu horrek lan-, prestakuntza-, osasun- eta ekonomia-alderdiei eragiten die, baina oso lotuta dago isolamenduarekin, gizarte-harremanak eta -loturak haustearekin eta familia- eta komunitate-sarerik ez izatearekin. Alarma-egoerak eta konfinamendu-betebeharrak eraginda, kalean bizi diren pertsonak beren borondatez edo nahi gabe

¹³ 'Guztion Artean' programak arriskuko biztanleei zuzendutako elkartasun antolatuko ekimenak sustatu eta babestu nahi ditu, boluntarioek, hirugarren sektoreko erakundeek eta erakunde publikoek osatutako lankidetzasare baten bidez. Sarean honakoak dira lankidetzan dihardutenak: erakundeak, [Sareen Sarea](#) (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sareen Sarea) eta boluntario-agentziak, [Sartu](#) Araban; [Bolunta](#) Bizkaian eta [Gizalde](#) Gipuzkoan; gainera, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lankidetzaren badago. Parte hartu ahal izateko, telefono zentralizatu bat jarri da (945 222 222).

¹⁴ **Sos Arrazakeria Gipuzkoa.** *La Atención a las personas sin techo en el estado de alarma, buenas y malas prácticas: buenas y malas prácticas.* #MeGustaríaQuedarmeEnCasa [linean]. [Donostia-San Sebastián]: Sos Arrazakeria Gipuzkoa, 2020. Hemen eskuragarri: <https://sosracismo.eu/informe-personas-sin-techo-y-estado-de-alarma/>

¹⁵ **Tolosa. Udala.** "Zaintza sarea Tolosa" martxan jarri da herritarrei laguntza eskaintzeko. In: *Tolosako Udala* [linean], 2020/04/02. Hemen eskuragarri:

<https://udala.tolosa.eus/eu/berriak/koronabirusa/zaintza-sarea-tolosa-martxan-jarri-da-herritarrei-laguntza-eskaintzeko>

Donostitik. Egiako Zaintza Sarea: "Es momento de mantenernos todos a una". *Donostitik* [linean], 15/04/2020. Hemen eskuragarri: <https://www.donostitik.com/egiako-zaintza-sarea-es-momento-de-mantenernos-todos-a-una/>

Astui, Iratxe. Gernika-Lumoko Zaintza Sareak 535 maskara eta 1.196 pantaila banatu dauz alarma-egoeran, *El correo, Bizkaia* [linean], 26/05/2020. Hemen eskuragarri:

<https://www.elcorreo.com/bizkaia/costa/gernikalumoko-zaintza-sareak-20200526102342-nt.html>

¹⁶ Ibid, p. 3

jo behar izan dute osasun-krisiari aurre egiteko nahitaez bete beharreko eskakizunei erantzuteko prestatu diren plazetara. Bi aldeko arreta hori, premiaren eta betebeharraren artekoa, aukera bat izan daiteke orain arte bazterkeria-egoeren larriagotzeari eraginkortasunez aurre egiteko gai ez zen sistema sozial eta ekonomiko batek izugarri zigortutako kolektibo baten beharrei erantzuteko, une honetara arte saihestezina zirudien prozesu bat.

"Noren osasuna defendatzen ari gara? Desberdintasun sozialak eta sanitarioak pandemia garaian" dokumentuak etikaren inguruan interesa duten gizarte- eta osasun-zerbitzuetako profesionalek egindako 22 pertsonaren hausnarketak jasotzen ditu. Dokumentu horrek arreta jartzen du oso ahulak diren pertsona-talde jakin batzuek, gizarte-bazterketako egoeran daudenek, pairatzen duten egoeran. Dokumentuak, atal batean, justizia azpimarratzen du osasun- eta gizarte-zerbitzuen politiketan irizpide gisa, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak, beste talde zaugarri batzuen artean, jasaten duten diskriminazio-egoera ikusarazten du.

"Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak beti eragin dute beldurra eta estigmatizatuak izan dira neurri berean: bereizi nahi dugun beste norbait dira, eta ez gara asko kezkatzen ezagutzeaz... eta ezezagunak beldurra sorrarazten du (...)"

Dokumentu horrek agerian uzten ditu antzemandako gabeziak:

"Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen osasun-egoera populazioaren batez bestekoa baino prekarioagoa da, eta arrisku handiagoko biztanleak dira. Hori osasun-arreta handiagoa izateko arrazoitzat hartu beharko litzateke, baina osasun-sisteman ez da planteatu egokitutako tokiei laguntzeko arretarik. Larrialdiko harrera-dispositibo osoak agerian utzi ditu, are argiago, dauden gabeziak, ez bakarrik alderdi kuantitatiboetan (bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua), baizik eta batez ere kualitatiboetan; izan ere, orain ia begiratu bakar batean ikus ditzakegu ongizate-sistemek artatzen dituzten pertsonak eta artatzen ez dituztenak, arreta berezia jarriz osasun-sistemara (OTI ez edukitzeagatik lehen mailako arreta eta Osasun Mentaleko Sarea) eta gizarte-zerbitzuen sistemara (lehen eta bigarren mailako arreta) sartzeko eta bertan jarraitzeko zailtasunei".

Zalantzarik gabe, kalean bizi diren pertsonak ematen zaien arreta ezin da udaletako gizarte-zerbitzuen ardura bakarrik izan, ezta gizarte-zerbitzuen sistemarena ere, baizik eta osasun-sistemarena, prestakuntza-hezkuntzarena, etxebizitzarena, diru-sarrerak bermatzekoa eta enplegua sortzekoa (eta abar). Haien beharrak bereziak dira, baina gainerako biztanleen antzekoak.

¹⁷ Asociación de Bioética Fundamental y Clínica. Grupo de trabajo ÉTICA Y COVID (Euskadi). ¿La salud de quién estamos defendiendo?: desigualdades sociales y sanitarias en tiempo de pandemia. *Blog, Asociación de Bioética Fundamental y Clínica* [linean], 06 de mayo de 2020. Hemen eskuragarri: <http://www.asociacionbioetica.com/blog/la-salud-de-quien-estamos-defendiendo-desigualdades-sociales-y-sanitarias-en-tiempo-de-pandemia>

Konfinamenduak ikaskuntza eta inbertsio soziala ekarri du, eta horrek jarraipena izan behar du. Ia hiru hilabete hauetan egin den esku-hartze sozialak errentagarri izan behar duen balio ekonomikoaz harago doa, gizarteratze-prozesuak bultzatuz eta egindako aurrerapenak okertu eta zapuztu ez daitezzen, konfinatzeko betebeharrak ez dagoenean.

Pertsona horiek kirol-, kultura- edo gizarte-baliabideetan hartzen dute ostatu, eta baliabide horien helburua ez da etxegabeak artatzea; beraz, laster espazio horietatik atera beharko dira. Euskal administrazio publikoak baliabide eta ekipamendu jakin batzuk, publikoak zein gizarte-ekimenekoak, laguntzen ari badira ere, hasitako prozesu batzuei jarraipena emateko, baliteke kasu batzuetan nahikoa plazarik ez gotea.

Arartekoaren iritziz, alarma-egoera ondoriorik gabe uzten denean, etikoki zalantzarria izango litzateke, eta etxegabe horiek baliabide egokietan artatzeari uzteak eraginkortasuna galduko luke. Erakunde honek badaki euskal administrazio publikoek ahalegin handia egin behar dutela pertsona horiei arreta emateko, baina *Etxegabeentzako Euskal Estrategian (2018-2021)* hartutako konpromisoen mesedetan, eta gizarte-desberdintasunean jatorria duen fenomeno horri erantzuteko erakutsitako interesaren berri emanez, ezinbestekoa da orain arte egin den arreta-ahaleginari eustea, aldi horretan egindako lanari ezinbesteko jarraitutasuna kentzea saihesteko.

Pertsona horiek gure artean jarraituko dute, eta gizarte-arreta eskatuko dute; beraz, hasitako gizarteratze-prozesua ez etetea litzateke helburua. Egindako lanak, sortutako loturek eta ikusitako aurrerapenek jarraipena izan behar dute, eremu horretan egindako inbertsio soziala eraginkortasun gutxiz erabiltzea saihesteko.

Covid 19aren ondorengo gizarteak gizarte solidarioagoa eta enpatikoagoa izan beharko du gehien sufritzen duten pertsonekin. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak¹⁸ oinarritzko printzipio bat adierazten du: gizaki guztiak aske eta duintasun eta eskubide berdinekin jaiotzen direla, eta, arrazoiz eta kontzientziaz horniturik, elkarren arteko anaitasunez jokatu behar dutela (1. artikulua). Horrek esan nahi du nahitaez kontuan hartu behar direla kalteberatasun-egoerak, ostatu egokirik ez izatea edo komunikazio elektronikorako trebetasun eta ekipamendu informatikorik eza arintzeko beharra, baita zaintzaren eta komunitatearentzako zerbitzuaren garrantzia ere. Hori guztia agerian geratu da krisi pandemikoaren garai honetan, modu bete-betean, nabarmenean, anbiguotasunik gabe. Gizarte-horizonte gisa, duintasunerako eta gizarte-ongizaterako eskubidea agertu da, gizarte bidezkoago eta solidarioago baten beharrezko osagai gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoak badu Etxegabeentzako Euskal Estrategia bat, bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko, etxebizitzan oinarritutako ikuspegia

¹⁸ **Nazio Batuak. Batzar Nagusia.** Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala [linean]. A/RES/3/217 A, 1948ko abenduaren 10a. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_eskubideak/eu_def/adjuntos/Giza_Eskubideen_Aldarrikapen_Unibertsala.pdf

garatzeko, gizarte-zerbitzuen esparruan bazterketa larrian dauden pertsonentzako baliabideak eta programak hobetzeko, eta bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta horri aurre egiteko politiketan genero-ikuspegia indartzeko. Eta etxegabeek herritartasun-eskubideak izango dituztela bermatzeko, haien egoera erregularizatuz. Gainera, hobekuntza sektorialak sartzen ditu osasunaren, diru-sarreraren bermearen eta enplegurako sarbidearen esparruan, etxegabeak aisialdian, hezkuntzan eta parte-hartze sozial eta politikoan sar daitezzen, bai eta hobekuntzak ere sentsibilizazioaren eta komunitateak bizitegi-bazterketako egoeren prebentzioan eta horiek jorratzean izan beharreko inplikazioaren esparruan, eta ezagutza koordinatzeko, ebaluatzeko eta kudeatzeko tresnen aurreikuspenean.

Jarraibide horiek jarduteko proposamen zehatzak jasotzen dituzte, eta proposamen horiek bete egin beharko lirateke, euskal botere publikoen borondatea bateratzen dutelako. Eusko Legebiltzarrak, 2016ko otsailaren 19an, legez besteko proposamen bat onartu zuen, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatzen baitzitzaion *“etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala hiru hilabeteko epean burutu dezala, eskumena duten erakunde, gizarte eragile eta hirugarren sektoreko entitateekiko elkarlanean, eta Legebiltzarrerara ekar dezala, bizitzaren arlo guztietan etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko eta horiei arreta integrala emateko prozesuak sustatze eta errazte aldera, modu koordinatuan eta bikoizketarik gabe”*. Legez besteko proposamena, Etxegabeentzako Euskal Estrategiaren motorra izan dena. Estrategia horri atxiki ahal izan zaizkio Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako erakunde, zuzendaritza eta organismoak.

Estrategia hau egiteko, adituak eta eragile publiko eta sozialak izan ziren tartean, etxegabetasunaren fenomenora ezagutza teoriko, praktiko eta operatibo batekin hurbiltzeko aukera eman dutenak, eta horrek, zalantzarik gabe, hura praktikan jartzea errazten du.

Estrategiak, gainera, kontzeptualizazio bat, diagnostiko eta azterketa sakon eta zehatz bat jasotzen ditu, Euskadi irteera-laukian jartzeko aukera ematen duena, pobrezia-aren aurpegi urratzaileena, etxegabeena, gure kaleetatik desagerrarazteko eta gizarte bidezkoago eta solidarioago baten helburua lortzeko.

¹⁹ **Euskadi. Legebiltzarra.** 5/2016 Legez besteko Proposamena, etxegabeen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala eta horren euskarri den gizarteratze aktiboko plana berehala Legebiltzarrerara ekartzeari buruz [linean]. *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, 2016.02.19, 159. zk. Hemen eskuragarri: https://www.legebiltzarra.eus/jc2/restAPI/pvgune_descargar/default/eaf2a3cd-ae63-43dd-9910-27a689cc9c8e

Azkenik, Arartekoak garrantzitsutzat jotzen du Nazio Batuen Errelatora Bereziak etxebizitza egoki bat izateko eskubideari buruz zabalduko ohar orientagarria²⁰ ere aipatzea, osasun-krisi honetan etxegabeak babesteko jarduera-proposamen jakin batzuekin. Proposamen horretan, posible eta egokia bada, etxegabeei ostatu ematea bermatu ahal izatea gomendatzen da, pandemia baino lehen eta ondoren.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikulua arabera, Arartekoak gomendio hau egiten die euskal administrazio publikoei:

GOMENDIO OROKORRA

Euskal administrazio publikoek alarma-egoeraren adierazpenaren ondoriozko eskakizunak betetzeko egin den ahaleginari jarraipena ematea eta, ahal den neurrian, lehen kalean bizi ziren pertsonen beharrei erantzutea, bai ostatuari dagokionez, bai gizarte- eta osasun-arretari dagokionez (besteak beste), konfinamendu-betebeharra amaitzen denean.

Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) gidalerroak bete daitezen sustatzea eta administrazio publiko eskudunek estrategia horri atxikitzeko bidean aurrera egitea.

²⁰ **Nazio Batuak. Etxebizitza egokiari buruzko errelatore berezia.** Protecting those living in homelessness. COVID-19 Guidance note. In: *Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos* [linean], updated 28 April 2020. Hemen eskuragarri: https://www.ohchr.org/Documents/Issues/Housing/SR_housing_COVID-19_guidance_homeless.pdf

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo